

## ALKATEAREN ERABAKIA

**GAIA:** Goienaren urteko ekarpena.

**ESPEDIENTEA:** 2026EDI20001

**INTERESDUNA:** GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP.E. (IFK: F20704375)

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 25. artikuluan, esaten du udalerriek, beraien interesak kudeatzeko eta beraien eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzaketela. Lege agindu hori burutzeko moduetako bat erakunde eta elkarteei herri onurako jarduerak egiten laguntzea da.

Zentzu horretan, Eskoriatzako Udalak ekitaldi honetarako udal aurrekontuan 35.860,00 euroko dirulaguntza bereizia aurreikusten du GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP.E.-ren alde, 2026. urtean antolatuko dituen jarduerak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko, zehazki aldizkaria, telebista, goiena.eus eta Puntua aldizkaria.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2a) artikulua esaten du toki entitateetako aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahal izango direla, hitzarmenetan eta dirulaguntza horiek arautzen dituzten arauetan jaso bezala.

Euskara teknikariak egindako proposamenaren arabera, dirulaguntza arautzeko hitzarmenaren baldintzak kontuan hartuta, Idazkari-kontuhartzaileak egindako aldeko txostena ikusita, eta "Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorra"-ren 6.artikuluak emandako eskumenak erabiliz, alkate naizen honek honako hau

### ERABAKI DUT

**LEHENENEGOA.-** Udalaren eta GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP.E.-ren (IFK: F20704375) artean egin beharreko hitzarmena ONARTZEA.

**BIGARRENA.-** GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP.E.-ri 35.860,00 euroko dirulaguntza ematea Goienaren jarduna diruz laguntzeko, batez ere honako hauek: aldizkaria, telebista, goiena.eus eta Puntua aldizkaria

**HIRUGARRENA.-** Hitzarmenaren 4. klausulan jasotakoaren arabera, dirulaguntzaren %70 ordaintzea hitzarmena sinatu eta arloko teknikariak ordainketa proposamena egin ondoren.

**LAUGARRENA.-** 35.860,00 euroko gastua konprometitzea, aipatutako dirulaguntzari dagokiona, eta indarrean dagoen udal aurrekontuko 0400.471.335.00.01 partidari egozte.



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2026EDI20001-Alkate erabakia/Resolución (GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP.E.)